

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1374

375/2017 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, M.^a Teresa Barrena Sarachaga andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendaria, berak hala eskatuta, kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15ko 1034/2015 Ebazpenaren bidez (ekainaren 12ko EHAA, 109. zk.), M.^a Teresa Barrena Sarachaga andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, zuzendaritza nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.^a Teresa Barrena Sarachaga andrea Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendaria, berak hala eskatuta, kargutik kentzea eta egindako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2017ko otsailaren 3an sartuko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Erakunde Sanitario Integratuari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordezari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.